



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2020ko EKAINAREN 13an EGINIKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2020ko ekainaren 13an, eguerdiko 13.00etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar LEGARRA CORTAJARENA (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon AYERZA SARASUA (Asteasu Batuz, AB)
Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Joseba TXAPARTEGI NIEVE (Asteasu Batuz, AB)
Maria Pilar ITURBE URDANGARIN (Asteasu Batuz, AB)
Aitor USANDIZAGA IZAGIRRE (Asteasu Batuz, AB)
Unai OTEGUI IRAZUSTA (Asteasu Batuz, AB)
Luke URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI (EAJ/PNV)

Ezin dela etorri aurretik adierazi du: Joseba GOMEZ SARASUA (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERRENDA:

- 1. 2020ko uztailaren 12an egingo diren EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2020 mahaien kideak izendatzeko zozketa publikoa.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

2020ko uztailaren 12an egingo diren EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2020 mahaien kideak izendatzeko zozketa publikoa.

2020ko uztailaren 12an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak 2020 mahaien kideak izendatzeko zozketa egin da; horretarako, CONOCE aplikazio informatikoa erabili du Idazkariak. Aipatu zozketan Asteasuko bi mahaiei dagozkien Mahaiburu, 1. Mahaikide, 2. Mahaikideak, eta horiek guztien bi ordezkariak izendatu dira; halaber, kide bakoitzeko 9 ordezkari izendatu dira, aipatu aplikazioak emandako aukera erabiliz, bere kasuan, mahaietako titular eta ordezkarien izendapenak ordezkatu ahal izateko.

Zozketaren emaitza inprimatu eta espedientean sartu du Idazkariak.

Idazkariak hitza hartu du. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak irizpide batzuk onartu ditu covid-19 egoerari aurre egiteko hauteskundeetan. Irizpide horiek behar bezala betetzeko azterketa egin du Idazkariak Brigadako langileekin batera, eta hauteskunde egunean ezarriko diren neurriak azaldu ditu. Besteak beste, hauek izango dira:

- Eskolako instalakuntzetako sarrera eta irteera nagusiak bereiztuko dira.
- Hauteskunde lokalean sartu aurretik, bi hilara bereiztuko dira; lehenengoa, 65 urtetik gorako eta haurdunentzat; bigarrena, beste hautesleentzat. Lehenengoek lehentasuna izango dute.
- Aglomerazioak ekiditeko, hauteskunde lokalaren sarreran laguntzaile bat egongo da, eta bi hautesle sartu ahal izango dira batera. Bozkatu ondoren, irteera idazkaritza ondoan dagoen pasilotik egingo da.
- Aterpean hesian jarriko dira, kirol eremuan inor sartu ez dadin, eta bozkatu ondoren inor bertan geratu ez dadin.
- Hidrogeleko banatzaileak eta pedazlezko zakarrontziak jarriko dira sarrera eta irteeran.
- Ibilbideak egoki seinalizatuko dira.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du eguerdiko 10:15 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2020ko ekainaren 13an.

Alkate andrea

Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea